

## Sistemen administrazioan aditua

Euskaratik, teknologiaz eta ezagutzaz baliatuz eta zientzia zabalduz, gizarte aktibo, kritiko eta berdinzalea eraikitzea xede, Elhuyarrek sistemen administrazioan aditua den pertsona bat behar du lantaldea indartzeko:

### Funtzio nagusiak:

- Azpiegitura-saileko ardua izango du; beraz, saileko lan eta atazak kudeatuko ditu.
- Bere ardurapean 5 pertsonako lantaldea izango du.
- Erakundearen digitalizazio-prozesuaren lidergoa izango du.
- Erakundeko azpiegitura informatikoaren eta baliabideen ikuspegi estrategikoa izango du.
- Erakundeko baliabideen erosketa-aukerak aztertuko ditu.
- Erakundearen beharrak identifikatu eta irtenbideak proposatuko ditu.
- Arloaren etengabeko hobekuntza sustatuko du.

### Zer eskaintzen da:

Erronka teknologiko handiko erakunde batean berrikuntza- eta hobekuntza-proiektu garrantzitsuetan parte hartzeko aukera.

Lanaldi osoa eta 6 hilabeteko kontratua, luzagarria eta mugagabea bihurtzeko aukerarekin.

Lan-ordutegi malgua eta etxetik lan egiteko erraztasunak.

Etengabeko garapen profesionala.

### Zer eskatzen da:

- Informatika-ingeniaritzako gradua edo baliokidea izatea.
- 5 urteko esperientzia sistemen administrazioan (Windows eta Linux).
- Euskara, gaztelania eta ingelesa menderatzea.
- Hardwarearen ezagutza: PC-ak, Mac-ak, sareak...
- Hodeiko azpiegituri buruzko oinarrizko ezagutzak (Gcloud, AWS, OVHcloud).
- Sistemen administrazioa:
  - Windows eta Linuxen administrazioaren ezagutza.
  - Windowserako paketeen gestio zentralizatua kontrolatzea.
  - Birtualizazio, biltegitratze eta backup sistemak.
- Sistemen segurtasunari buruzko oinarrizko jakintza izatea.
- Pertsona irekia, ekintzailea, komunikatzaile ona, taldean lan egiten dakiena eta laguntzeko prestutasuna duena.

### Baloratuko da:

- Sistemen administrazioarekin erlazionatutako masterra izatea.
- Kudeaketarako gaitasuna izatea.

Gure lantaldearen parte izan nahi baduzu, bidali zure CVa helbide honetara: [pertsonak@elhuyar.eus](mailto:pertsonak@elhuyar.eus). Gaian, jarri **Sistemak**